



2002/03/04ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko urtarrila**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERAK EGONKOR IRAUN DU (%0,0) 2002KO URTARRILEAN

Indize orokorra Araban igo da (%2,5), eta jaitsi Bizkaian (%-0,9) eta Gipuzkoan (%-0,4)

2002ko urtarrilean, ia aurreko urteko maila berean iraun du Euskal AEko industri produkzioak; izan ere, urte arteko tasak, azken hamabi hilabeteetako aldakuntza biltzen duen tasak, ez du inolako aldakuntzarik izan (%0,0).

2002ko urtarrilean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *larruaren eta oinetakoen industria* (%12,6), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%12,0), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%11,6), *ehungintza eta jantzigintza* (%11,4), *kimika-industria* (%5,0), *bestelako manufaktura-industriak* (%4,8) eta *garraio-materiala* (%3,9).

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzten sektoreak *petrolioa fintzea* (%-15,9), *metalgintza eta metalezko gaiak* (%-7,1), *material elektrikoa* (%-4,9), eta *papera, argitalpena eta grafikoak* (%-4,6) izan dira.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2002ko urtarrilean, *ekipo-ondasunen* (%1,6) eta *kontsumo-ondasunen* (%1,0) tasak igo dira; *bitarteko ondasunei* dagokiena, aldiz, jaitsi egin da (%-1,3).

Industri Produkzioaren Indize Orokorraren portaera desberdina izan da hiru herrialde historikoetan. Alde batetik, hazkunde nabarmena antzeman da (%2,5ekoa) Araban, eta, bestetik, jaitsiera txikiak izan dira Gipuzkoan (%0,4koa) eta Bizkaian (%0,9koa), neurri batean *petrolioa fintzea* sektoreak azken herrialde horretan izan duen beherapenaren ondorioz.

Taula: 2002ko URTARRILA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarrileko tasa	2001eko urtarrileko tasa zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	0,0	-0,3	7,1	-0,3
Araba	2,5	2,4	5,2	-2,4
Bizkaia	-0,9	-1,2	6,1	-0,6
Gipuzkoa	-0,4	-0,6	9,3	1,4
Indizeak sektore-zatiduraka				
- Euskal AE:				
Ateratze-industriak	12,0	12,0	24,0	12,8
Manufaktura-industria	-1,3	-1,6	8,2	0,1
Energia elektrikoa, gasa eta ura	11,6	11,6	-3,6	-4,2
Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:				
Bitarteko ondasunak	-1,3	-1,6	9,8	3,2
Kontsumo-ondasunak	1,0	1,0	8,0	-0,3
Inbertsio-ondasunak	1,6	1,4	0,4	-8,4

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:


Eustat

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Tel: 945-01 75 00 Fax: 945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Amaia Gómez Argul
 Tel: 945-01 75 14 Fax: 945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es